

Oinarrizko
osasan-laguntzako
gidaliburua

**PAZIENTEEN
ARRETA
EUSKARAZ**

**ATENCIÓN A
PACIENTES
EN EUSKERA**

Guía de
atención primaria

PAZIENTEEN ARRETA EUSKARAZ

Oinarrizko osasun-laguntzako gidaliburua

ATENCIÓN A PACIENTES EN EUSKERA

Guía de atención primaria

Argitaratzailea / Edita: Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

Egileak / Autores: Osasunbidea, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua,
Elhuyar Aholkularitza.

Diseinua / Diseño: cobo-munarriz.com

L.G. / D.L.: NA 2528-2025

Edizioa / Edición: 2025



AURKIBIDEA

ÍNDICE

■ 1. Sarrera	Introducción	5
■ 2. Elkarrizketak	Conversaciones	
2.1. Kortesiako adierazpenak. Datu pertsonalak eskatzea	Expresiones de cortesía. Solicitud de datos personales.....	7
2.2. Telefonozko arreta	Atención telefónica.....	8
2.3. Hitzordua	Cita	12
2.4. Erreklamazioak	Reclamaciones.....	14
2.5. Osasun txartela	Tarjeta sanitaria	15
2.6. Bertaratze-agiriak.....	Certificado de asistencia.....	16
2.7. Medikua aukeratzeko eskabidea.....	Solicitud para seleccionar médico/a	17
2.8. Historia klinikoa eskuratzeko eskabidea	Solicitud de la historia clínica.....	19
2.9. Hirugarrenentzako fakturazioa	Facturación para terceros	20
2.10. Zerbitzuei buruzko informazioa	Información sobre los servicios.....	21
2.11. Mugimenduak zentro barruan	Movimientos dentro del centro	22
2.12. Zenbait azalpen	Algunas explicaciones	24
■ 3. Oinarrizko hiztegia	Diccionario básico	
3.1. Zerbitzuak (errotulazioa).....	Servicios (rotulación)	31
3.2. Ohiko gaixotasunak	Enfermedades frecuentes	33
3.3. Gorputz-atalak.....	Partes del cuerpo.....	36
3.4. Gorputz-organoak	Organos corporales.....	38
3.5. Eskeletoa	Esqueleto	40
3.6. Probak / analisiak / ebakuntzak	Pruebas / análisis / operaciones	42
3.7. Laneko ohiko hiztegia.....	Vocabulario habitual de trabajo	43
■ 4. Material lagungarria	Material de ayuda	47

1

1. SARRERA

Gidaliburu hau Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak bere Hizkuntza Planaren baitan landutako materiala da eta helburu du departamentuko profesionalei euskaraz lan egiteko erraztasunak ematea.

Bai osasuneko langilearen aldetik, bai hiritarraren aldetik, zalantzak eta ohitura falta egon daitezke euskaraz hitz egiteari dagokionez; hortaz, gidaliburu honek gabezia horiek gaingitzeko laguntza ematea du helburu; zalantzaren bat, galderaren bat edo hutsuneren bat dagoenean laguntza eskaintzea.

Gidaliburu hau Oinarrizko osasun-laguntzan eta pazienteen arretan lan egiten duten lantalde profesionalei zuzendutako liburuxka da. Elhuyar Aholkularitzak landutako materialetik abiatuta, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Osasun Departamentuaren artean egin dira egin behar ziren egokitzapenak.

1. INTRODUCCIÓN

Esta guía es un material elaborado por el Departamento de Salud del Gobierno de Navarra dentro de su Plan Lingüístico y tiene como objetivo facilitar el trabajo profesional en euskera del Departamento.

Tanto por parte del personal sanitario como de la ciudadanía puede haber dudas y falta de costumbre a la hora de comunicarse en euskera, por lo que esta guía tiene como objetivo ayudar a superar estas carencias; ofrecer ayuda ante cualquier duda, pregunta o carencia.

Esta guía es un folleto dirigido a los equipos profesionales que trabajan en Atención Primaria y Atención a pacientes, a partir del material elaborado por Elhuyar Aholkularitza, y se han realizado las adaptaciones necesarias entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y el Departamento de Salud.



2. ELKARRIZKETAK

2.1. Kortesiako adierazpenak. Datu pertsonalak eskatzea.

Datu pertsonalak eskatzeko
Izen-abizenak, mesedez. Zeintzuk dira zure izen-abizenak? Nola duzu izena?
Esan, mesedez, zure datuak: izen-abizenak, adina... Zure datuak emanen dizkidazu, mesedez?
Zenbat urte dituzu? Noiztik bizi zara hemen?
Hona hemen datu pertsonalak eskatzeko fitxaren eredua:

2. CONVERSACIONES

2.1. Expresiones de cortesía. Solicitud de datos personales.

Para solicitar datos personales
Nombre y apellidos, por favor. ¿Cuáles son tu nombre y apellidos? ¿Cómo te llamas?
Indícanos, por favor, tus datos: nombre, apellidos, edad... ¿Me das tus datos, por favor?
¿Cuántos años tienes? ¿Desde cuándo vives aquí?
El modelo de solicitud de datos personales es el siguiente:

Datu pertsonalak eskatzeko fitxa:

Ficha para solicitar los datos personales:

Izena • Nombre..... Ane	Abizenak • Apellidos..... Lizarribar Zubeldia
Jaiotza-data • Fecha de nacimiento..... 1980-12-20	
Jaioterria • Lugar de nacimiento..... Bera	
Sexua • Sexo <input type="checkbox"/> Gizona Hombre <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Ez bitarra Persona no binaria	
Adina • Edad..... 30	NANa • DNI..... 223344999
Telefonoa • Teléfono..... 948 236 545	Telefono mugikorra • Teléfono móvil..... 666 566 661
Faxa • Fax..... 948 236 544	Helbide elektronikoa • Correo electrónico..... a@izarkom.com
Lanpostua • Puesto de trabajo..... Idazkaria	
Kalea • Calle..... Kale Nagusia	Zenbakia • Número..... 22
Solairua • Planta..... 6.a	Aldea • Lado..... Eskuina
Posta kodea • Código Postal... 22490	Herria • Pueblo.... Iruña
Herrialdea • Provincia.... Nafarroa	

2.2. Telefonozko arreta

Zenbait gomendio
Telefono-dei bat dagoenean, erantzun ele bitan (guztia edo hitz batzuk): euskaldunari euskaraz jarraitzeko aukera emanen diozu.
Solaskidea ezagutu eta berarekin konfiantzarik izan ezean, ez erabili hitanorik.
Irribarretsu baldin bazaude, solaskideak igarri eta eskertu egingen du.
Hitz garrantzitsuak azpimarratu edo errepikatu.
Utziozu solaskideari mintzatzen eta egin nahi dituen galdera guztiak egiten.
Asko hitz egin behar baldin baduzu, aldatu intonazioa eta erritmoa.
Telefonoz ez da ikusten keinurik; horregatik, aurrez aurre baino polikiago hitz egin behar da.
Telefono-zenbakirik eman behar baldin baduzu, zenbakiak banan-banan ematea komeni da.
Emailik eman behar baldin baduzu, letrak banan-banan ematea komeni da.

2.2. Atención telefónica

Recomendaciones
Al recibir la llamada, contestar en bilingüe (todo o algunas palabras): dar la opción de seguir en euskera a la persona vascoparlante.
Si no conoces al/a la interlocutor/a o si no tienes confianza, no le hables en hitano.
Si estás sonriente, el/la interlocutor/a se dará cuenta y lo agradecerá.
Subraya o repite las palabras más importantes.
Deja hablar a la persona interlocutora para que haga todas las preguntas que sean necesarias.
Si tienes que hablar mucho, cambia la entonación y el ritmo.
Por teléfono no se ven los gestos; por eso, habla más despacio de lo que lo harías cara a cara.
En caso de que tengas que facilitar un número de teléfono, conviene decir los dígitos uno a uno.
En caso de que tengas que facilitar el email, conviene deletarlo.



✗ Saihestu kopuru handiak	✓ Esan zenbakiak banan-banan
948 55 85 37	
bederatziehun eta berrogeita zortzi - berrogeita hamabost - laurogeita bost - hogeita hamazazpi	bederatzi-lau-zortzi, bost-bost, zortzi-bost, hiru-zazpi

✗ Evita los números grandes	✓ Di los números de uno en uno
948 55 85 37	
novecientos cuarenta y ocho - cincuenta y cinco - ochenta y cinco - treinta y siete	nueve-cuatro-ocho, cinco-cinco, ocho-cinco, tres-siete

Hasierako agurra
Telefonoa hartzean, lehenengo esaiozu solaskideari nora deitu duen, eta ondoren egizu kortesiazko agurra:
<ul style="list-style-type: none"> • Doneztebeko Osasun-etxea, egun on. • Zer kontsulta mota behar duzu? • Zer sintoma dituzu?

Saludo inicial
Cuando cojas el teléfono, primero dile a tu interlocutor/a el destino de su llamada y después el saludo de cortesía:
<ul style="list-style-type: none"> • Centro de Salud de Doneztebe, buenos días. • ¿Qué tipo de consulta necesitas? • ¿Qué síntomas tienes?



Telefono bidezko erantzunak

Itxaron dezan eskatzeko
Itxaron apur bat(ean), mesedez.
Zaude pixka batean, arren.
Orain beste telefono batetik (hitz egiten) ari da. Bost minutu barru deituko duzu?
Bai, segundo bat.

Hitzordua emateko
Esan zure izen-abizenak, mesedez.
Bihar goizean, adibidez, ongi datorkizu? Zer ordutan?
Noizko nahi duzu hitzordua?

Respuestas telefónicas

Solicitar espera
Un momento, por favor.
Espera un poco, por favor.
Ahora está hablando desde otro teléfono. ¿Llamarás en 5 minutos?
Si, un segundo.

Para dar cita
Indícanos tu nombre y apellidos por favor.
¿Mañana por la mañana, por ejemplo, te viene bien? ¿A qué hora?
¿Para cuándo quieres la cita?

Deia beste norbaiti pasatzeko
Oraintxe jarriko/paratuko da.
Orain pasako dizut deia.
Momentu bat, mesedez. Oraintxe jarriko zaitut berarekin.

Nahastu egin dela esateko
Barkatu, baina nahastu egin zarela uste dut.
Ez, nahastu egin zara; hau osasun-etxea da.
Ez, ez da hemen; osasun-etxera deitu duzu.

Norbait ez dagoela esateko (eta mezua hartzeko)
Une honetan ez dago hemen. Enkargurik ematea nahi duzu?
Orain kanpoan da. Mezuren bat-edo utzi nahi diozu?
Sentitzen dut, baina kanpora irten da. Zerbait esatea nahi duzu?
Bilera batean dago. Abisurik ematea nahi duzu?
Gaur ez da etorriko. Deitu bihar, mesedez.
Ez du erantzuten. Bost minutu barru deituko duzu berriro?

Transferencia de llamada
Ahora se pondrá.
Ahora te pasaré la llamada.
Un momento por favor, ahora mismo te pongo con él/ella.

Para decir que se ha equivocado
Perdón, creo que te has equivocado.
No, te has equivocado, esto es el centro de salud.
No, no es aquí; has llamado al centro de salud.

Para decir que alguien no está (y dejar un mensaje)
En estos momentos no está aquí. ¿Quieres que le deje algún encargo?
Ahora está fuera. ¿Quieres dejarle algún mensaje?
Lo siento, pero ha salido. ¿Quieres que le diga algo?
Está en una reunión. ¿Quieres que le pase el aviso?
Hoy no vendrá. Llama mañana, por favor.
No contesta. Llama dentro de 5 minutos, por favor.



2.3. Hitzordua

Harrera egiteko galderak
Egun on, zer nahi duzu?
Kaixo, egun on.
Bai, esan.
Hitzordua hartu nahi duzu? Laguntzarik behar duzu?
Zerbaitetan laguntzea nahi duzu?

Zerbait ulertzen ez denean
Barkatu, ez dizut ulertu.
Barkatu, ez dizut ongi entzun. Zer esan duzu?
Errepika dezakezu, mesedez?
Poliki, mesedez, euskara ikasten ari naiz eta.
Euskara ikasten ari naiz, baina segi euskaraz lasai.

2.3. Cita

Preguntas de saludo
Buenos días, ¿qué desea?
Hola, buenos días.
Sí, dígame.
¿Quiere coger cita? ¿Necesita ayuda?
¿Necesita que le ayude en algo?

Cuando no se entiende algo
Perdona, no te he entendido.
Perdona, no te he oído bien. ¿Cómo has dicho?
¿Puedes repetirlo por favor?
Por favor, despacio, estoy aprendiendo euskera.
Estoy aprendiendo euskera, pero sigue hablando en euskera.

Erabiltzaileak hitzordua hartu nahi du
Hitzordua/txanda hartu nahi dut Lasa doktorearekin
Lasa medikuarekin hitz egin behar dut.

Erabiltzaileak hitzordua aldatu nahi du
Hitzordua daukat hamabietan Lasa medikuarekin, baina ezin izanen naiz etorri. Emanen didazu beste egun baterako?

Hitzordua emateko edo berritzeko
Martxoaren 21ean, goizeko hamaiketan.
Hemen daukazu idatzita.
Nahi baduzu, gaur bertan, arratsaldeko hiruretan.
Bihar lehenengo orduan, zer moduz?

Ezinezkoa da hitzordua zehaztea
Ezinezkoa da, bajan dago eta.
Irailera arte ezin izanen zara berarekin egon, oporretan dago eta.
Gaixorik dago, gaur ez da etorri. Deitu bihar, badaezpada.
Geroago etorriko da.
Sentitzen dut, gaur ezinezkoa da.

Si el/la usuario/a quiere coger cita
Quiero coger cita con la doctora Lasa.
Tengo que hablar con la doctora Lasa.

Si el/la usuario/a quiere modificar la cita
Tengo una cita a las doce con la doctora Lasa, pero no podré venir. ¿Me la puedes cambiar a otro día?

Para dar o renovar la cita
El 21 de marzo, a las once.
Aquí lo tienes escrito.
Si quieres hoy mismo a las tres de la tarde.
¿Qué tal mañana a primera hora?

Imposible concretar la cita
Es imposible, porque está de baja.
Hasta septiembre no podrás estar con el/ella, está de vacaciones.
Está enfermo/a, hoy no ha venido. Inténtalo mañana por si acaso.
Vendrá más tarde.
Lo siento, hoy es imposible.

2.4. Erreklamazioak

Erabiltzaileak erreklamazioa egin nahi du
Kaixo, kexa bat jarri nahi dut.
Erreklamazio-orri bat emanen didazu, mesedez?
Ez nago oso konforme medikuak esan didanarekin.
Non jar dezaket erreklamazioa?
Oso haserre nago medikuak esan didanarekin.
Kexa bat idatzi nahi dut.
Ez dut onartzen kontsultan gertatu dena.
Erreklamazioa idatziz egin behar da?

Erreklamazioari buruzko argibideak
Bete erreklamazio-orria eta ekarri berriro hona, mesedez.
Idatz ezazu zure kexa orri honetan, eta idatziz erantzunen dizute.
Bai, nik ulertzen zaitut, baina ez naiz medikua. Beraz, egin ezazu erreklamazioa eta zurekin jarriko dira harremanetan.
Erreklamazioak idatziz egin behar dira.
Erreklamazioak bide telematikoz aurkez daitezke.

2.4. Reclamaciones

El/la usuario/a quiere hacer una reclamación
Hola, quiero poner una queja.
¿Me das una hoja de reclamación por favor?
No estoy de acuerdo con lo que me ha dicho el/la médico/a.
¿Dónde puedo hacer la reclamación?
Estoy muy enfadado/a con lo que me ha dicho el/la médico/a.
Quiero escribir una queja.
No puedo aceptar lo que ha pasado en la consulta.
¿La reclamación hay que hacerla por escrito?

Instrucciones sobre las reclamaciones
Rellena la hoja de reclamación y entrégala por favor.
Escribe la reclamación en esta hoja y te responderán por escrito.
Sí, te comprendo pero no soy médico/a. Por lo tanto, haz la reclamación y se pondrán en contacto contigo.
Las reclamaciones hay que presentarlas por escrito.
Las reclamaciones se pueden presentar por vía telemática.



2.5. Osasun txartela

Erabiltzaileak osasun txartela eskatu edo berritu nahi du
Haurarentzat txartel berria egin nahi dut. Zer egin behar dut?
Poltsa lapurtu didate eta bertan neukan Osasunbideko txartela. Berria egin nahi nuke.
Lehenago atzerritarren identifikazio zenbakia nuen, eta orain nortasun agiri nazionala dudanez, txartela aldatu nahi dut.

Osasun txartelari buruzko argibideak
Osasun txartel berria egiteko, agiri hauek ekarri behar dituzu: errolda-ziurtagiria, familia-liburuaren fotokopia, elkarbizitza-ziurtagiria eta Gizarte Segurantzako zenbakia.
Lapurreta kasuetan, beharrezkoak dira salaketa-agiria, NANaren fotokopia, errolda-ziurtagiria eta Gizarte Segurantzako zenbakia. Horretaz gain, egiaztatu helbide bera dela, osasun txartel berria etxera bidaltzeko.

2.5. Tarjeta sanitaria

El/la usuario/a quiere solicitar o renovar la tarjeta sanitaria
Quiero hacer una tarjeta nueva para el/la niño/a. ¿Qué tengo que hacer?
Me han robado el bolso y tenía la tarjeta sanitaria dentro. Quisiera hacer una nueva.
Antes tenía el número de identificación de extranjero y ahora que tengo el DNI, quiero cambiar de tarjeta

Instrucciones sobre la tarjeta sanitaria
Para hacer la nueva tarjeta sanitaria es necesario aportar empadronamiento, fotocopia del libro de familia, certificado de convivencia y número de la Seguridad Social.
En caso de robo es necesario el documento de denuncia, fotocopia del DNI, certificado de empadronamiento y número de la Seguridad Social. Además, hay que comprobar que es la misma dirección para enviar a casa la nueva tarjeta sanitaria.



2.6. Bertaratze-agiriak

Erabiltzaileak bertaratze-agiria nahi du
Bertaratze-agiria behar dut, lanerako. Hemen eginen didazue?
Bertaratze-agiria kontsultan eskatu behar duzu.
Bertaratze-agiria egiteko, mesedez?

Datuak eskatzeko
Zure izen-abizenak, mesedez?
NANa utziko didazu, faborez?
Zein medikurekin egon zara?
Nor da zure medikua?
Noiz etorri zara medikuarenera?
Zu etorri zara medikuarengana ala norbaiti laguntzera etorri zara?

2.6. Certificado de asistencia

El/la usuario/a quiere el certificado de asistencia
Necesito el certificado de asistencia para el trabajo. ¿Me lo haréis aquí?
El certificado de asistencia lo tienes que pedir en consulta.
¿Para hacer el certificado de asistencia, por favor?

Para solicitar los datos
Tu nombre y apellidos, por favor.
¿Me dejas el DNI, por favor?
¿Con qué médico/a has estado?
¿Quién es tu médico/a?
¿Cuándo has venido al/a la médico/a?
¿Has venido al/a la médico/a o vienes de acompañante?

2.7. Medikua aukeratzeko eskabidea

Erabiltzaileak medikua aldatu nahi du
Medikua aldatu nahi dut. Zer egin behar dut?
Medikua aldatu nahi nuke. Badago aukerarik?
Arratsaldeko mediku bat nahi dut, posible bada.
Goizez kontsultara etortzeko arazoak ditut, eta arratsaldeko mediku bat aukeratu nahi dut.
Gurasoen medikua aldatzea nahi dut, haiek ere nirea izan dezaten.
Mediku euskalduna nahi nuke.

Beste mediku bat esleitzeko
Hauek dira aukeratu ditzakezun medikuak: Sánchez doktorea, Zabaleta doktorea eta Gómez doktorea. Zein aukeratu nahi duzu?
Libre dauden medikuak bi baino ez dira: Sánchez doktorea eta Gómez doktorea. Zein nahi duzu?
Sánchez doktoreak kupoa itxia dauka. Arratsaldeko medikuek kupoa itxita daukate.
Euskaraz hitz egiten duten medikuak bi dira: Zabaleta doktorea eta Elizalde doktorea.

2.7. Solicitud para seleccionar médico/a

La persona usuaria quiere cambiar de médico/a
Quisiera cambiar de médico/a. ¿Qué tengo que hacer?
Quisiera cambiar de médico/a. ¿Es posible?
Quisiera tener el/la médico/a en horario de tarde, si es posible
Tengo problemas para acudir a la consulta por la mañana y quisiera elegir un/a médico/a en horario de tarde.
Quisiera cambiar el/la médico/a de mis padres, para que tengan el/la mismo/a que yo.
Quisiera tener un/a médico/a euskaldun.

Para adjudicar otro/a médico/a
Puedes elegir a la doctora Sánchez, doctora Zabaleta y doctor Gómez. ¿Cuál quieres elegir?
Hay dos que están libres: la doctora Sánchez y el doctor Gómez. ¿Cuál quieres elegir?
La doctora Sánchez tiene el cupo cerrado. Los/las médicos/as de la tarde tienen el cupo cerrado.
Hay dos que hablan euskera: la doctora Zabaleta y el doctor Elizalde.

Erabiltzaileak beste mediku baten iritzia nahi du
Ez nago pozik medikuak esandakoarekin. Beste mediku baten iritzia nahi nuke.
Posible al da beste mediku baten iritzia jasotzea?
Kezkatuta nago eta beste mediku baten iritzia ere entzun nahi nuke.

La persona usuaria quiere la opinión de otro/a médico/a
No estoy contento/a con lo que me ha dicho el/la médico/a. Quisiera tener una segunda opinión.
¿Es posible tener la opinión de otro/a médico/a?
Estoy preocupado/a y me gustaría escuchar la opinión de otro/a médico/a.

Beste mediku baten iritzia eskatzeko
Bi mediku dituzu aukeran: Sánchez doktorea eta Goñi doktorea. Zein nahiago duzu?
Gómez andreak ikusiko zaitu.
Sinatu hemen, mesedez.

Para solicitar la opinión de otro/a médico/a
Tienes dos para elegir: la doctora Sánchez y el doctor Goñi. ¿Cuál prefieres?
Te atenderá la doctora Gómez.
Firma aquí, por favor.



2.8. Historia klinikoa eskuratzeko eskabidea

Erabiltzaileak historia klinikoa nahi du
Neure historia klinikoa behar dut. Nola eskatu behar da?
Zer egin dezaket semearen historia klinikoa eskuratzeko?
Historia klinikoa eraman behar dut ospitale batera. Hemen egiten da eskabidea?

Historia klinikoaren eskaerari erantzuteko
Inprimaki hau bete behar duzu eta behean sinatu, eta erantsi Nortasun Agiria edo beste dokumentu identifikagarri bat (AIZ, gidatzeko baimena, pasaporte edo familia-liburua).
Bete itzazu inprimaki honetako datuak, mesedez, eta geu arduratuko gara behar den lekura bidaltzeaz.
Prest dagoenean, abisatuko dizugu.

2.8. Solicitud de la historia clínica

La persona usuaria quiere la historia clínica
Necesito mi historia clínica. ¿Cómo puedo solicitarla?
¿Qué puedo hacer para conseguir la historia clínica de mi hijo?
Tengo que llevar la historia clínica al hospital. ¿Debo realizar la solicitud aquí?

Para responder a la solicitud sobre la historia clínica
Debe rellenar este formulario y firmar y anexas el Documento Nacional de Identidad u otro documento identificativo (NIE, permiso de conducir, pasaporte o libro de familia).
Cumplimenta los datos de este impreso, por favor, y nos encargaremos de enviarlo a donde corresponda.
Te avisaremos cuando esté preparada.

2.9. Hirugarrenentzako fakturazioa

Erabiltzaileak lan edo auto istripuaren osteko izapideak egin nahi ditu
Egun on, lehengoan istripua izan nuen, eta aseguru-etxeak paper hau bete dezazuen eskatu dit.
Kaixo, istripu baten ondoren larrialdietan egon nintzen, eta aseguru-etxeak hau eman dit zuek betetzeko.

Istripuen izapideei buruz erantzuteko
Bai, esan mesedez zure izen-abizenak.
Noiz izan zen istripua?
Zer ordutan ekarri zintuzten larrialdietara?
Zein medikuk artatu zintuen? Larrialdietan edo beste zerbitzu batean artatu bazaituzte, guk ezin dugu aseguru-etxearen paper hau bete.
Orri hau bete behar duzu, eta inplikaturako ibilgailuen matrikulak eta aseguru-konpainien datuak behar bezala idatzi.

2.9. Facturación para terceros

La persona usuaria quiere realizar los trámites posteriores al accidente de coche o laboral
Buenos días, he tenido un accidente y la aseguradora me ha solicitado que cumplimentéis este papel.
Hola, tras haber tenido un accidente estuve en urgencias y la aseguradora me ha dado este papel para que lo cumplimentéis.

Para responder sobre los trámites relacionados con accidentes
Sí, dígame, por favor, su nombre y apellidos.
¿Cuándo fue el accidente?
¿A qué hora le trasladaron a urgencias?
¿Qué médico/a le atendió? Si le han atendido en urgencias o en otro servicio, nosotros/as no podemos rellenar este papel de la compañía de seguros.
Debe rellenar esta página y escribir correctamente las matrículas de los vehículos implicados y los datos de las compañías aseguradoras.

2.10. Zerbitzuei buruzko informazioa

Erabiltzaileak zerbitzuei buruzko informazioa nahi du
Zer ordutan dauka kontsulta Zabala doktoreak?
Espiometriako emaitzak berehala ematen dituzte?
Arratsalderako daukat medikuaren kontsulta, baina oso gaizki nago. Posible da orain beste mediku batek ikustea?

Zerbitzuei buruzko informazioari erantzuteko
Zabala doktorea goizez egoten da, bederatzietatik ordu batera.
Arratsaldeko txanda dauka, hiruretatik bederatzietara.
Emaitzak berehala emanen dizkizute, proba bukatu eta jarraian.
Esan zure izen-abizenak, eta Zabaleta doktorearen zerrendan sartuko zaitut.
Zoaz lehenengo solairura, Goñi doktorearen kontsultara.

2.10. Información sobre los servicios

La persona usuaria quiere información sobre los servicios
¿A qué hora tiene consulta la doctora Zabala?
¿Los resultados de la espirometría se proporcionan al instante?
Tengo consulta con el/la médico/a esta tarde, pero me encuentro muy mal. ¿Es posible que me vea ahora otro/a doctor/a?

Para responder a la información sobre servicios
La doctora Zabala trabaja por la mañana, de nueve a una.
Tiene turno de tarde, de tres a nueve.
Te darán los resultados en seguida, en cuanto termine la prueba.
Dime tu nombre y apellidos y te incluiré en la lista de la doctora Zabaleta.
Vaya a la primera planta, a la consulta del doctor Goñi.



2.11. Mugimenduak zentro barruan

Erabiltzaileen GALDERAK zerbitzuen kokapenari buruz
Kaixo, zenbatgarren solairuan dago Pediatria?
Barkatu, haurdunei non egiten diete azukrearen proba?
Zein tokitan daude emaginak?
Non egiten dira X izpien probak?

Zerbitzuen kokapenari buruzko ERANTZUNAK
Bigarren solairura igo eta jo ezazu ezkerretara, pasilloaren amaieraraino.
Hemen behean, bigarren atean.
Lehen solairuan, Ginekologiaren ondoan.
Hirugarren pisuan, pasilloaren bukaeran.

2.11. Movimientos dentro del centro

PREGUNTAS de personas usuarias sobre la localización de los servicios
Hola, ¿en qué planta se encuentra Pediatría?
Perdone, ¿dónde se realiza la prueba de glucosa a las embarazadas?
¿Dónde se encuentran las matronas?
¿Dónde se realizan las pruebas de rayos X?

RESPUESTAS sobre la localización de los servicios
Suba al segundo piso y gire a la izquierda, hasta el final del pasillo.
Aquí abajo en la segunda puerta.
En el primer piso, al lado de Ginecología.
En el tercer piso, al final del pasillo.

Erabiltzaileen GALDERAK ambulatorio bateko zerbitzuei buruz
Barkatu, esanen didazu mesedez Dermatologia non dagoen?
Egun on, zer solairutan dago Ramírez kardiologoa?
Traumatologiako kontsultara joateko, mesedez?

Anbulatorio bateko zerbitzuei buruzko ERANTZUNAK
Bosgarren solairuan, Harreraren ondoan.
Igo zaitetz laugarren pisura, eta Digestio Aparatua ikusten duzunean, galde ezazu berriro.
Beheko solairura jaitsi behar duzu eta eskuinetara jo.

Erabiltzaileen GALDERAK Ospitalez Kanpoko Osasun Mentalari buruz
Barkatu, non dago Helduen Psikiatria?
Terapia Okupazionalak zer ordutegi dauka?
Toxikomanieta joateko, mesedez?

Ospitalez Kanpoko Osasun Mentalari buruzko ERANTZUNAK
Igo zaitetz hirugarren solairura, eta bukaeran ikusiko duzu, eskuineko atean.
Orain ez dago inor. Goizez egoten dira, bederatzietatik ordu batera.
Laugarren solairura igo, eskuineko pasillotik segi eta aurrez aurre topatuko duzu.

PREGUNTAS de personas usuarias sobre los servicios de un ambulatorio
Perdone, ¿me puede decir dónde está Dermatología?
Buenos días, ¿en qué planta está la cardióloga Ramírez?
Por favor, ¿para ir a la consulta de traumatología?

RESPUESTAS sobre los servicios de un ambulatorio
En la quinta planta, al lado de Recepción.
Suba al cuarto piso y cuando vea Aparato Digestivo, vuelva a preguntar.
Tiene que bajar a la planta baja y girar a la derecha.

PREGUNTAS de personas usuarias sobre Salud Mental Extraospitalaria
Perdone, ¿dónde se encuentra Psiquiatría de adultos?
¿Qué horarios tiene la terapia ocupacional?
Por favor, ¿para ir a Toxicomanías?

RESPUESTAS sobre Salud Mental Extraospitalaria
Suba al tercer piso, y lo verá al final, la puerta de la derecha.
Ahora no hay nadie. Trabajan por la mañana, de nueve a una.
Suba al cuarto piso, siga por el pasillo derecho y lo encontrará enfrente.

2.12. Zenbait azalpen

ORDUAK ADIERAZTEKO		
	Zer ordu da?	Zer ordutan?
13:00	Ordu bata (da)	Ordu batean
14:00	Ordu biak (dira)	Ordu bietan
15:00	Hirurak	Hiruretan
16:00	Laurak	Lauretan
17:00	Bostak	Bostetan
18:00	Seiak	Seietan
19:00	Zazpiak	Zazpitan
20:00	Zortziak	Zortzietan
21:00	Bederatziak	Bederatzietan
22:00	Hamarrak	Hamarretan
23:00	Hamaikak	Hamaiketan
24:00	Hamabiak	Hamabietan

OHARRA: *-rak* eta *-retan* amaierak "hiru" eta "lau" zenbakiekin; bestela, *-ak* eta *-etan*. Adibidez: "hirurak", "lauretan"..., baina "seiak", "zortzietan"...

ZENBAIT MINUTU GEHIAGO ADIERAZTEKO		
	Zer ordu da?	Zer ordutan?
	Ordu bata eta bost	Ordu bata eta bostean
	Ordu biak eta hamar	Ordu biak eta hamarrean
	Hirurak eta hogeit	Hirurak eta hogeian
	Laurak eta hogeita bost	Laurak eta hogeita bostean

2.12. Algunas explicaciones

PARA SEÑALAR LAS HORAS	
¿Qué hora es?	¿A qué hora?
(Es) la una	A la una
(Son) las dos	A las dos
Las tres	A las tres
Las cuatro	A las cuatro
Las cinco	A las cinco
Las seis	A las seis
Las siete	A las siete
Las ocho	A las ocho
Las nueve	A las nueve
Las diez	A las diez
Las once	A las once
Las doce	A las doce

NOTA: Los finales *-rak* y *-retan* se utilizan con los números "hiru" y "lau"; en el resto de casos, *-ak* y *-etan*. Por ejemplo: "hirurak", "lauretan"..., pero "seiak", "zortzietan"...

PARA SEÑALAR ALGUNOS MINUTOS MÁS	
¿Qué hora es?	¿A qué hora?
La una y cinco	A la una y cinco
Las dos y diez	A las dos y diez
Las tres y veinte	A las tres y veinte
Las cuatro y veinticinco	A las cuatro y veinticinco

"ETA LAURDEN", "ETA ERDIAK" ADIERAZTEKO	
Zer ordu da?	Zer ordutan?
Ordu bata eta laurden / ordu bat eta laurdenak	Ordu bata eta laurdenetan / ordu bat eta laurdenetan
Ordu biak eta laurden / ordu bi eta laurdenak	Ordu biak eta laurdenetan / ordu bi eta laurdenetan
Hirurak eta laurden / hiru eta laurdenak	Hirurak eta laurdenetan / hiru eta laurdenetan
Ordu bat eta erdiak	Ordu bat eta erdietan
Ordu bi eta erdiak	Ordu bi eta erdietan
Hiru eta erdiak	Hiru eta erdietan

PARA SEÑALAR "Y CUARTO" E "Y MEDIA"	
¿Qué hora es?	¿A qué hora?
La una y cuarto	A la una y cuarto
Las dos y cuarto	A las dos y cuarto
Las tres y cuarto	A las tres y cuarto
La una y media	A la una y media
Las dos y media	A las dos y media
Las tres y media	A las tres y media

ZENBAT MINUTU GUTXIAGO ADIERAZTEKO		
	Zer ordu da?	Zer ordutan?
08:45	Bederatziak laurden gutxi(ago) / zortziak eta berrogeita bost	Bederatziak laurden gutxi(ago)tan / zortziak eta berrogeita bostean
12:35	Ordu bata hogeita bost gutxi(ago) / hamabiak eta hogeita hamabost	Ordu bata hogeita bost gutxi(ago)tan / hamabiak eta hogeita hamabostean
17:40	Seiak hogei gutxi(ago) / hamazazpiak eta berrogei	Seiak hogei gutxi(ago)tan / hamazazpiak eta berrogeian
19:50	Zortziak hamar gutxi(ago) / hemeretziak eta berrogeita hamar	Zortziak hamar gutxi(ago)tan / hemeretziak eta berrogeita hamarrean

PARA SEÑALAR CUÁNTOS MINUTOS MENOS	
¿Qué hora es?	¿A qué hora?
Las nueve menos cuarto	A las nueve menos cuarto
La una menos veinticinco	A la una menos veinticinco
Las seis menos veinte	A las seis menos veinte
Las ocho menos diez	A las ocho menos diez

Zer ordu arte? Zer ordutara arte?
Ordu bata arte / Ordu batera arte
Ordu bi eta erdiak arte / Ordu bi eta erdietara arte

Zer ordutatik zer ordutara?
Hamarretatik ordu batera
Zortzietatik ordu bietara

Orduak zenbaki bidez
Orduak zenbaki bidez idatzi nahi direnean, minutuak eta segundoak bina digituz bereizi behar dira eta tartean bi puntu jarri. Adibidez: 10:00, 09:30
Deklinatuta jarri behar badira, berriz, orduak pluralean deklinatuko dira (15:00etan) eta minutuak singularrean (15:30ean)

DATAK ADIERAZTEKO
Edozein izen bezala deklinatzen dira zenbakiak ere, eta zifren atzetik tarterik utzi gabe eransten zaie deklinabide-atzizkia: 8an, 24ko, 19ra, 2020rako, etab.
Data osorik idatzi behar ez dugunerako, hona hemen zenbait ohar:
Urtea eta hila: 2022ko abendua / 2020ko abenduan / 2021eko abendutik / 2023ko abendura...
Urteak eta egunak deklinatzeko, kontuan eduki behar da zenbakia kontsonantez ala bokalez amaitzen den, eta esan bezalaxe idatzi behar da: 2021eko, 2022ko, 2023ko, 27ko, 11ko, 5eko...

¿Hasta qué hora?
Hasta la una
Hasta las dos y media

¿De qué hora a qué hora?
De las diez a la una
De las ocho a las dos

Las horas a través de números
Cuando queremos escribir las horas a través de números, los minutos y los segundos se deben dividir de dos en dos dígitos y poner en medio dos puntos. Por ejemplo: 10:00, 09:30
En el caso de que haya que declinarlos, las horas se declinarán en plural (15:00etan) y los minutos en singular (15:30ean).

PARA SEÑALAR LAS FECHAS
Los números se declinan de la misma manera que cualquier nombre y el sufijo declinativo se añade tras la cifra sin dejar margen: 8an, 24ko, 19ra, 2020rako, etc.
Algunas aclaraciones para cuando no es necesario escribir la fecha en su totalidad: Año y mes: 2022ko abendua / 2020ko abenduan / 2021eko abendutik / 2023ko abendura...
Para declinar los años y días es necesario tener en cuenta si finalizan en consonante o vocal y se deben escribir de la siguiente manera: 2021eko, 2022ko, 2023ko, 27ko, 11ko, 5eko...



Hona hemen zenbait kasu lagungarri:


Algunos ejemplos que nos pueden servir de ayuda:

NOIZ CUÁNDO	2021ean	2022an	2023an	2024an	2025ean
NOIZKO DE CUÁNDO	2021eko	2022ko	2023ko	2024ko	2025eko
NOIZTIK DESDE CUÁNDO	2021etik	2022tik	2023tik	2024tik	2025etik
NOIZ ARTE HASTA CUÁNDO	2021era arte	2022ra arte	2023ra arte	2024ra arte	2025era arte

Datak zifra hutsekin
Inprimaki, txartel, pazienteentzako ohar eta abarretan, data zifra hutsekin jarri ohi da. ISO erakundeak horretarako emandako arauak betetzen dira nazioartean.
Arau horien arabera (euskarak berak ere eskatzen duen moduan), data honako hurrenkeran idatzi behar da: urtea/hila/eguna.
Adibidez: 2021-02-12, 2021/02/12.
Oharra: hobe da urtea lau zifrekin idaztea, bestela ulergarriak ez diren edo nahasgarriak diren datak sor daitezke eta: 21-02-12.

Fechas sólo con cifras
En impresos, tarjetas o notas para pacientes, las fechas se suelen escribir por medio de cifras. Para ello, se cumplen las normas establecidas por la entidad ISO.
Según dichas normas (tal y como el euskera también lo demanda), las fechas se deben escribir siguiendo este orden: año/mes/día. Por ejemplo: 2021-02-12, 2021/02/12.
Nota: es mejor escribir el año con cuatro cifras, de lo contrario se pueden crear fechas que pueden resultar confusas: 21-02-12.

ZENBAKI KARDINALAK			
NÚMEROS CARDINALES			
0	zero / huts (kiroletan / en deportes)	30	hogeita hamar
1	bat	40	berrogei
2	bi	50	berrogeita hamar
3	hiru	60	hirurogei
4	lau	70	hirurogeita hamar
5	bost / bortz	80	laurogei
6	sei	90	laurogeita hamar
7	zazpi	100	ehun
8	zortzi	101	ehun eta bat
9	bederatzi	200	berrehun
10	hamar	300	hirurehun
11	hamaika	400	laurehun
12	hamabi	500	bostehun
13	hamahiru	600	seiehun
14	hamalau	700	zazpiehun
15	hamabost	800	zortziehun
16	hamasei	900	bederatziehun
17	hamazazpi	1.000	mila
18	hemezortzi / hamazortzi	1.200	mila eta berrehun
19	hemeretzi	1.201	mila berrehun eta bat
20	hogeia	1.000.000	milioi bat
21	hogeita bat	10.000.000	hamar milioi



Hogetik ehunerainoko zenbakiak honela idatziko dira:	Los números de veinte a cien se escribirán así:	41: berrogeita bat / 69: hirurogeita bederatzi / 97: laurogeita hamazazpi
Ehunekoak lotuta idatziko dira:	Los centenares se escribirán en una sola palabra:	300: hirurehun / 500: bostehun / 800: zortziehun
Milakoak bananduta idatziko dira:	Los millares separados:	4.000: lau mila / 47.000: berrogeita zazpi mila / 91.000: laurogeita hamaika mila
Ehunetik milarainoko zenbakiak aurreko arauen arabera idatzi behar dira, ehunekoen ostean "eta" ipinita:	Los números desde cien hasta mil se escribirán tal y como se ha señalado, poniendo tras los centenares "eta":	225: berrehun eta hogeita bost / 579: bostehun eta hirurogeita hemeretzi / 908: bederatziehun eta zortzi
Milatik gorako zenbakiak idazteko, irizpide bera:	Mismo criterio para los números superiores a mil:	1.003: mila eta hiru / 3.456: hiru mila laurehun eta berrogeita hamasei

ZENBAKI ORDINALAK
Ordinaletan <i>-garren</i> atzizkia erantsen diogu zenbakiari: bosgarren, bigarren, hogeita zazpigarren...
Gainera, <i>-garren</i> atzizkiaren ikurra puntua da. Beraz, zenbakia zifraz idazten denean <i>-garren</i> esaneren litzatekeen tokian puntua idazten da: 5. = bosgarren 8.a = zortzigarrena 22.etik = hogeita bigarrenetik
Idazteko arauak kardinalentzat emandako berberak dira, <i>-garren</i> atzizkia erantsita.

NÚMEROS ORDINALES
En los ordinales se añade al número el sufijo <i>-garren</i> : <i>bosgarren, bigarren, hogeita zazpigarren</i> ...
Además, el símbolo del sufijo <i>-garren</i> es un punto. Por lo tanto, cuando el número se escribe mediante cifras, en el lugar donde se colocaría el sufijo <i>-garren</i> se escribe el punto: 5. = <i>bosgarren</i> 8.a = <i>zortzigarrena</i> 22.etik = <i>hogeita bigarrenetik</i>
Las normas para escribir los números ordinales son las mismas que para los cardinales, añadiendo el sufijo <i>-garren</i> .

1. lehenengo, lehen, lehenbiziko	7. zazpigarren	13. hamahirugarren
2. bigarren	8. zortzigarren	20. hogeigarren
3. hirugarren	9. bederatzigarren	21. hogeita batgarren
4. laugarren	10. hamargarren	100. ehungarren
5. bosgarren	11. hamaikagarren	1.000. milagarren
6. seigarren	12. hamabigarren	10.000. hamar milagarren

E

3. DICCIONARIO BÁSICO

3.1. Servicios (rotulación)

Aparato digestivo
Área de atención al paciente
Asistencia a domicilio
Atención especializada
Atención primaria
Atención urgente
Biblioteca
Botiquín
Cardiología
Circuito respiratorio
Cirugía
Cura
Dermatología
Endocrinología
Enfermería (profesión)
Enfermería (lugar)
Ginecología
Ginecólogo/a
Matrona
Medicina general
Médico de familia
Odontología

3. OINARRIZKO HIZTEGIA

3.1. Zerbitzuak (errotulazioa)

Digestio-aparatua
Pazienteen arretarako eremua
Etxeko laguntza
Arreta espezializatua
Oinarrizko osasun-laguntza
Premiazko arreta
Liburutegia
Botikina
Kardiologia
Arnas zirkuitua
Kirurgia
Sendaketa
Dermatologia
Endokrinologia
Erizaintza (lanbidea)
Erizaindegia (lekua)
Ginekologia
Ginekologoa
Emagina
Medikuntza orokorra
Familia-medikua
Odontologia

Oftalmología
Optometrista
Otorrinolaringología (ORL)
Pediatría
Psicólogo/a
Psiquiatra
Psiquiatría de adultos
Psiquiatría infantil y juvenil
Radiología
Recepción
Terapia ocupacional
Tocoginecología
Toxicomanías
Trastornos alimentarios
Traumatología
Urología

Oftalmologia
Optometrista
Otorrinolaringologia (ORL)
Pediatria
Psikologoa
Psikiatra
Helduen psikiatria
Haur eta gazteen psikiatria
Erradiologia
Harrera
Terapia okupazionala
Tokoginekologia
Toxikomaniak
Elikadura-nahasmenduak
Traumatologia
Urologia

3.2. Enfermedades frecuentes

ahogo
ardor
astenia
bocio
bronquitis
bulimia
cáncer
catarata
cistitis
cólico
colitis
conjuntivitis
contusión
convulsión
depresión
dermatitis
desnutrición
diabetes
diarrea
disfagia
disnea
dolor de cabeza
embolia
enfermedad infecciosa
epilepsia
esguince
estreñimiento

3.2. Ohiko gaixotasunak

itolarri / itobehar / itoaldi
bihotzerre
astenia
bozio
bronkitis
bulimia
minbizi
katarata / begi-lauso
zistitis
koliko
kolitis
konjuntibitis
kontusio
konbultsio / dardara / dardarizo
depresio
dermatitis
desnutrizio
diabetes
beherako
disfagia
disnea / arnasestu
buruko min
enbolia
gaixotasun infekzioso
epilepsia
bihurdura / bihurritu
idorreri

estrés
faringitis
fractura
fiebre
gastritis
granos
gripe
halitosis
hematoma
hemorragia
hemorroide
hepatitis
herpes
hipertensión
hongos
ictericia
infarto
infección
inflamación
insuficiencia cardíaca
insuficiencia renal
insuficiencia respiratoria
intoxicación
laringitis
latidos
leucemia
mareos
meningitis
metástasis

estres
faringitis
haustura
sukar
gastritis
pikorrak
gripe
halitosi
hematoma
hemorragia / odoljario
hemorroide
hepatitis
herpes
hipertentsio
onddoak
ikterizia / min hori
infartu / bihotzeko
infekzio
hantura
bihotz-gutxiegitasun
giltzurrun-gutxiegitasun
arnas gutxiegitasun
intoxikazio
laringitis
taupadak
leuzemia
zorabioak
meningitis
metastasi

meteorismo
migraña
náuseas
nefritis
neumonía
obesidad
osteoporosis
otitis
pancreatitis
peritonitis
psoriasis
quemadura
quiste
resfriado
ronquera
rubéola
sarampión
sinusitis
soplo
sordera
tétanos
torcedura
tortícolis
traumatismo
trombosis
tumor
úlceras
varicela
vértigo


meteorismo
migraina
goragaleak
nefritis
pneumonia
obesitate
osteoporosi
otitis
pankreatitis
peritonitis
psoriasi
erredura / erre
kiste
hotzeri / burutik beherako
erlats / marranta
errubeola
elgorri / txarranpin
sinusitis
murmurio
gortasun / gorreri
tetanos
bihurritu / bihurtura
tortikolis
traumatismo
tronbosi
tumore
ultzera
barizela / astanafarreri
bertigo

3.3. Partes del cuerpo

antebrazo	besaurre
axila	besape / galtzarbe
barbilla	kokots
boca	aho
brazo	beso
cabello	ile / bilo
cabeza	buru
cadera	aldaka / mokor
campanilla	aho-gingil / ubula
cara	aurpegi
ceja	bekain
cintura	gerri
codo	ukondo
colmillo	letagin / betortz
columna vertebral	bizkarrezur
cuello	lepo / sama / idun
cuerna vocal	ahots-korda
culo	ipurdi
dedo	hatz / eri / behatz (oinekoa)
diente	hortz
encía	hortzoi / oi
espalda	bizkar
frente	bekoki / kopeta
garganta	eztarri / zintzur

3.3. Gorputz-atalak

hombro	besaburu / lepo
hueso	hezur
labio	ezpain
lengua	mihi / mingain
mandíbula	masailezur / matrailezur
nalga	ipurmasail / ipurmami
nariz	sudur
nuca	garondo
ojo	begi
ombligo	zilbor / zil
oreja	belarri
paladar	ahosabai
pecho	bular
pelo	ile / bilo
pene	zakil
pestaña	betile
pezón	titiburu / titimutur
pie	oin
pierna	hanka / berna
puño	ukabil
rodilla	belaun
sobaco	besape / galtzarbe
talón	orpo
testículo	barrabil




3.4 Órganos corporales

ano
bazo
cerebro
corazón
esófago
estómago
hígado
intestino
intestino delgado
intestino grueso
intestino irritable
laringe
ovario
páncreas
pulmón
recto
riñón
tráquea
útero
vagina
vejiga

3.4. Gorputz-organoak

uzki
bare
garun / burmuin
bihotz
esofago / hestegorri
urdail / sabel
gibel
heste
heste mehar
heste lodi
heste narritakor
laringe
obario / obulutegi
pankrea
birika
ipurteste / ondeste
giltzurrun
trakea / zintzur-heste
umetoki / utero
bagina
maskuri




3.5. Esqueleto

caderea
clavícula
costilla
esternón
fémur
húmero
mandíbula
omoplato
pelvis
peroné
pubis
rótula
tibia
vértebra

3.5. Eskuetoa

aldaka / mokor
klabikula / lepauztai
saihets-hezur
bularrezur
femur / izterrezur
humero / besahezur
masailezur / matrailezur
omoplato / sorbalda-hezur
pelbis
perone
pubis
errotula / belaunezur / belaunburu
tibia / berna-hezur
orno



3.6. Pruebas / análisis / operaciones

biopsia
cesárea
colonoscopia
cura
ecografía
electrocardiograma
endoscopia
escáner
espirometría
exploración
extracción de sangre
gastroscopia
glucemia
inyectable
laparoscopia
mamografía
operación
prueba cutánea
prueba de alergia
prueba de esfuerzo
punción
radiografía
raspado
resonancia magnética
sutura
tomar la tensión
tomografía
transfusión
trasplante

3.6. Probak / analisiak / ebakuntzak

biopsia
zesarea
kolonoskopia
sendaketa
ekografia
elektrokardiograma
endoskopia
eskaner
espirometria
miaketa / azterketa
odol-ateratze
gastroskopia
gluzemia
injektagarri
laparoskopia
mamografia
operazio / ebakuntza
larruazaleko proba
alergia-proba
esfortzu-proba
puntzio
erradiografia
arraspatze
erresonantzia magnetiko
jostura
tentsioa hartu
tomografia
transfusio
transplante

3.7. Vocabulario habitual de trabajo

acompañante
actualizar
administrativo/a
admisión
agudo
anticoncepción
área
ascensor
atender
autorizar
beneficio
biblioteca
causa
celador/a
certificado
cita
clave
comprometerse
confirmar
cuidado
cura
dirección
DNI (Documento nacional de identidad)
dirección
doctor/a
embarazo
empadronamiento

3.7. Laneko ohiko hiztegia

laguntzaile
eguneratu / gaurkotu
administrari
harrera
akutu
kontrazepzio
arlo / alor / eremu
igogailu
artatu
baimena eman / baimendu
onura / mesede
liburutegi
arrazoi / zio
zeladore
egiaztagiri / ziurtagiri
hitzordu / ordu / txanda
gako
hitzeman / konpromisoa hartu
baieztatu
zainketa
sendaketa
helbide
NAN (Nortasun agiri nazional)
zuzendaritza
doktore
haurdunaldi
erroldatze

enfermero/a
enfermero/a de pediatría
enfermo/a
extrahospitalario/a
facultativo/a
fecha
firma
intrahospitalario/a
inyectable
justificante de asistencia
médico/a (nombre)
médico/a (adjetivo)
mes
motivo
muestra
obligatorio
observación
ocupante (de vehículo)
paciente
parentesco
parto
petición
piso / planta
provisional
reclamación
recepción
resfriado
resguardo
responsable de administración

erizain
pediatriako erizain
gaixo
ospitalez kanpoko
mediku
data
sinadura
ospitale barneko
injektagarri
bertaratze-agiri
mediku / sendagile
mediko
hil / hilabete
arrazoi / zio
lagin
derrigorrezko / nahitaezko
ohar
bidaiari
paziente
ahaidetasun
erditze
eskari / eskaera
solairu
behin-behineko
erreklamazio / kexa
harrera
hotzeri
frogagiri
administrazioko buru

responsable de enfermería
sala de espera
seguridad social
servicio
sinistro
solicitante
solicitud
sugerencia
sutura
trabajador/a social
trabajo social
terminal
TIS (Tarjeta individual sanitaria)
trámite
urgencia
usuario/a
vacuna
vacunación
volante

erizantzaintzako buru
itxarongela
gizarte-segurantza
zerbitzu
ezbehar
eskatzaille
eskabide / eskaera
iradokizun
jostura
gizarte-langile
gizarte-lan
terminal
OTI (Osasun txartel indibidual)
izapide
larrialdi / urgentzia
erabiltzaile
txerto
txertaketa
bolante / kontsulta-orri

4

4. Material lagungarria

Hiztegiak:

- * Elhuyar hiztegia: <https://hiztegiak.elhuyar.eus/>
- * Labayru: <https://hiztegia.labayru.eus/>
- * Euskalterm: <https://www.euskadi.eus/euskalterm/>
- * Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiarbilatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu-ES

Itzultzaile automatikoak:

- * Itzuli-Itzultzaile neuronal: <https://www.euskadi.eus/itzuli/>
- * Itzultzaile juridiko-administratiboa: <https://www.ivap.ejgv.euskalsarea.eus/itzuli/>
- * Elia-Elhuyarren itzultzaile automatikoa: <https://elia.eus/itzultzailea>

Kontsulta-guneak:

- * Euskarabidearen webgunea: <https://www.euskarabidea.es/>
- * Euskaltzaindiaren arauak: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenarauak&view=frontpage&Itemid=1723&lang=eu
- * EHUren Sareko Euskal Gramatika: <https://www.ehu.eus/seg/>

4. Material de ayuda

Diccionarios:

Traductores automáticos:

Sitios para realizar consultas:

